

19/2026 Irizpena, ekainaren 1ekoa: Ofiziozko berrikuspena, 2021eko maiatzaren 27ko osoko bilkuraren erabakiarena, Martzillako Udalak eskatuta.

Eskatzailea: Martzillako Udala

Txostengilea: Eduardo Santos Itoiz

Interesa: Ofiziozko berrikuspena: administrazio-egintzaren balizko deuseztasuna, prozedura iraungitzeagatik. Berrikuspenaren mugak: denbora iragatea eta gauza epaitua.

Irizpenaren xedea da ofiziozko berrikuspen-espedita bat, Martzillako Udalak 2021eko maiatzaren 27ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren gainekoa. Haren bidez, enpresa kontratistak aurkeztutako alegazioak ezetsi ziren, eta kontratistak ordaindu beharreko kalte-ordainen zenbatekoa berretsi zen (736.569,16 euro), ez betetzeagatik “Nueva, San Ezequiel Moreno, Urmeneta eta El Puente kaleetako hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak” izeneko obra-kontratua. Kontratu hori Martzillako Udalak suntsiarazi zuen 2020ko urriaren 16ko erabaki baten bidez, obrak gauzatzeko epea ez betetzeagatik, baldintza hori kontratazioaren funtsezko baldintza baitzen. Kontratuaren suntsiarazpenaren ondorioz, Udalak 2021eko urtarrilean erabaki zuen kontratu horren likidazioa onestea. Kontratuaren erruzko suntsiarazpenaren eta likidazio-erabakiaren aurka, enpresak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen, eta ezetsi egin zen.

2021eko maiatzaren 27an, Udalak erabaki zuen enpresaren alegazioak ezestea, esan bezala, eta kontratistak ordaindu beharreko kalte-ordainaren zenbatekoa berrestea. Hala, behin betiko bermea egikaritu zuen kalte-ordainaren zati bat ordaintzeko, eta borondatezko diru-bilketarako prozedura abiarazi zuen. 2022ko martxoaren 31n, Alkatetzaren ebazpen baten bidez, erabaki zen erreklamaturiko zenbatekoa borondatez biltzeko prozedura abiaraztea. Ebazpen horren aurka, kontratistak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen, eta hura ere ezetsi egin zen.

2022ko maiatzean, enpresak Martzillako Udalari eskatu zion 2021eko maiatzaren 27ko osoko bilkuran hartutako erabakia ofizioz berrikusteko, erabat deuseza zela uste baitzuen, lege ezarritako prozedura erabat alde batera utzita hartua zelako. Izan ere, haren ustez, kontseilu honen irizpena falta zen, eta ez zuen kontratazio-organoaren nahitaezko txostentzat hartzen Iruñeko Abokatuen Elkargoko legelari batek bidalitako kanpoko txostena. Halaber, enpresaren ustez, ez zen Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua bete, enpresaren defentsa-eskubidea urratu zelako, 2021eko

urtarrileko erabakiaren aurkako errekurtsua ebatzi aurretik hartu baitzen bigarren erabaki hori, lehen erabakiaren ondorio dena [Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 47.1.e) eta a) artikulua]. Udalak 2022ko uztailako osoko bilkuran hartutako erabaki baten bidez, ez zen onartu ofizioz berrikusteko eskaera, eta erabaki horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri zen. Errekurtsu hori zati batean onartu zen, eta epaian (2025eko martxokoa, apelazioan berretsia 2025eko urrian) ezarri zen ofiziozko berrikuspena tramitatu behar zela. Epai horrekin bat, kontratistak 2025eko abenduan idazki bat aurkeztu zuen, berriz ere ofiziozko berrikuspena eskatzeko, eta Martzillako Udalak 2021eko maiatzaren 27ko osoko bilkuran hartutako erabakia deusez deklaratu zedin. Hasieran alegaturiko arrazoiez gain, kontratistak argudiatu zuen ez zela prozedura egokia erabili erabakia hartzeko; izan ere, kalterako edo kargak ezartzeko egintza hori prozedura iraungi ondoan eman zen, kontratua likidatzeko espedientea 2020ko urriaren 16an hasi baitzen, eta, errekurtsogileak alegazioak egin ondoan, 2021eko maiatzaren 27an bukatu baitzen; hala, zazpi hilabete baino gehiago iragan ziren, eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 21.3 artikuluan epe askoz laburragoa ezartzen da, hiru hilabetekoa.

Ofiziozko berrikuspena onartzeari dagokionez, Kontseiluak aztertu ditu enpresak alegaturiko arrazoiak. Azterketa horretatik, laburpen honetan nabarmentzen da zer irizpen eman duen Kontseiluak prozedura iraungi izanari buruz, kontratistak hori alegatu baitzuen.

Espedienteko jarduketetatik ondorioztatzen denez, kontratua likidatzeko prozedura benetan iraungi zen, hiru hilabete baino gehiago igaro zirelako prozedura hasi zenetik bukatu zen arte, eta Udalak, bere garaian, ez zuelako epeen zenbaketa eten, ezta, arrazoiak emanda, epeak luzatzea erabaki ere. Auzitegi Gorenak prozedura iraungitzearen ondorioei buruzko iritzia eman du, eta, 22/2025 Epaian ezarri duenez, iraungitzeak esan nahi du prozedura jada ez dela “funtsari buruzko ebazpen baliozkoa eman ahal izateko bide egokia”; izan ere, iraungitako prozeduretan emandako ebazpenak baliogabeak dira. Halaber, Auzitegi Gorenak ezarri duenez, iraungitzearen institutua aplikatzen zaie kontratuak likidatzeko prozedurei; bereziki, baldin eta prozedura horietan ezartzen baita Administrazioari zer kalte-galera eragin zaizkion, kontratistari egozten zaizkion arrazoiengatik kontratua suntsiaraztearen ondorioz.

Horrenbestez, espedientea iraungi egin zen, eta Osoko Bilkuraren erabakia deusez deklaratu ahal zen, kargak ezartzeko egintza bat baitzen. Hala, ebatzi behar da ea deuseztasun horren ondorioz bidezkoa den merkataritza-sozietateak eskatzen duen ofiziozko berrikuspena baiestea. Estatu Kontseiluak, Auzitegi Nazionalaren epai batean oinarrituta, uste du prozedura iraungitzea ez dela aintzat hartu behar ofiziozko

berrikuspenak egiteari begira; izan ere, ez dator bat erabateko deuseztasunaren kauekin. Gaztela eta Leongo Aholku Kontseiluak kontrako iritzia eman du; izan ere, hark ezarri duenez, iraungitzearen ondorioz prozedura ez da existitzen edo baliogabea da, eta ezinezkoa da funtsezko ebazpen baliodunik ematea existitzen ez den prozedura batean, hura eman baita erabat alde batera utzita lege ezarritako prozedura, eta hori deuseztasun-kausa bat baita, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 47.1.e) artikuluari jarraikiz. Gaur egun, Auzitegi Gorenak behin betiko erabaki bat hartzearen mende gaude, zehazteko zein den deuseztasunaren irismena Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 47.1.e) artikulua aplikatzearen ondorioetarako, eta, ondorioz, ezartzeko ea eskatutako ofiziozko berrikuspena baietsi behar den edo ez. Auzitegi horrek, tributuen arloan, kasazio-intereseko gaitzat jo du honako hau: “ezartzea ea prozedura iraungitzea ebazpenaren deuseztasunaren kausatzat hartu behar den, edo soilik deuseztagarritasunaren kausatzat”.

Horregatik guztiagatik, Kontseiluak uste du aztertu behar dela ea legeak eta jurisprudenziak ezarritako mugak betetzen diren edo ez, administrazio-egintza irmo eta onartu bat ofizioz berrikusteko aukerari dagokionez. Ofiziozko berrikuspena ez da legezkotasuna berrezartzeko ohiko tresna bat, eta, hortaz, ez da administrazio- edo jurisdikzio-errekurtsoen ordezkoko bide bat; hala, bete egin behar dira legezkotasun-printzipiotik eta segurtasun juridikoaren printzipiotik datozen betebeharrak. Horregatik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 110. artikuluan berrikuspenaren mugak ezartzen dira, eta, hala, berrikuspen-ahalmenak baliatzerik ez dago baldin eta, akzioak preskribatu direlako, denbora igaro delako bestelako gorabeherengatik, ahalmen horiek baliatzea ekitatearen, fede onaren, partikularren eskubideen edo legeen aurkakoa bada.

Kasu honetan, bi inguruabar aztertu behar dira: denbora igaro izana eta gauza epaitua. Denbora igaro izana ez da nahikoa, berez, egintza erabat deusezak ofizioz berrikustea eragozteko, baina bai, ordea, egoera juridikoa finkatu den kasuetan. Kontseiluaren ustez, epe egokian aurkaratu ez izana eta ofiziozko berrikuspena berandu erabili izana –urtebete baino gehiago iragandakoan Udalak 2021eko maiatzaren 27ko osoko bilkuran erabakia hartu zuenetik– ohiko errekurtsuen ordezkoko mekanismo gisa, muga hori ezartzeko elementua da, kontuan hartuta merkataritza-sozietateak behar bezala errekurritu zituela, bide judizialean, erabakiaren jatorrian dauden administrazio-egintza guztiak, bai eta erabakiaren ondokoak ere, baina ez aztergai dugun hau. Gainera, 2022ko uztailaren 1ean merkataritza-sozietateak 736.569,16 euroko transferentzia bat egin zuen Udalak erreklamaturako zenbatekoak ordaintzeko, eta, horrek, zalantzarik gabe, jarduketa finkatu bat eragin du. Hala, Udala behartuta legoke zenbateko hori itzultzeraz eta ondoko prozedura guztiak

berrabiaraztera, hura erreklamatzeko, baldin eta horretarako epea egonen balitz; izan ere, une honetara arte gaiaren funtsari buruz eman diren epai judizial guztiak, salbuespenik gabe, Martzillako Udalaren aldekoak izan dira.

Gauza epaituari dagokionez, ofiziozko berrikuspenerako muga bat da, baldin eta epai irmo batek jada administrazio-egintza baten legezkotasuna deklaratu badu. Iraungitzearen alegazioa 2022ko martxoaren 31ko dirubilletako udal-erabakia aurkaratzean sortu zen. Enpresak adierazi zuen kontratua likidatzeko espedientea iraungi egin zela, hiru hilabeteko legezko epetik kanpo ebatzi zelako. Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak kontratua likidatzeko eta kalte-galerak zehazteko espedientea iraungitzeko uzia aztertu zuen, eta adierazi zuen auzi-jartzaileak nahi duela garaiz eta behar bezala aurkaratu ez zen administrazio-jarduera bat berrikusi dadila. Hala, ondorioztatu zuen ez dela bidezkoa uzi hori berrikustea, zenbateko hori auzi-jartzaileak berak eragindako kalte-galeren ordain batetik baitator, eta epaitegiak eta sala horrek berak berretsi baitzuen, irmoak bilakatu diren ebazpenen bidez. Nahiz eta iraungitzea ez zen zuzenean alegatu orain aurkaratu den Alkatetzaren erabakiaren aurka, haren aurkako zuzeneko errekurso baten bidez, alegazio hori egin zen ondorengo egintzen baliozkotasunari buruz. Epaitegiak eta Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin zuten 2021eko maiatzaren 27ko osoko bilkuraren erabaki irmoaren deuseztasuna.

Onartzen da iraungitzeak, teoriarik, egintzaren erabateko deuseztasuna eragin dezakeela. Hala ere, eztabaidagarria da deuseztasun hori ofiziozko berrikuspen baten bidez baliarazi ahal izatea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 47.1.e) artikulua babesean. Nolanahi ere, egintzaren irmotasunak, igarotako denborak, egindako ordainketek eta aurretiazko ebazpen judizialek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 110. artikuluko segurtasun juridikoa gailentzen dute ofiziozko berrikuspenaren gainetik.

Horregatik guztiatik, Kontseiluak ondorioztatu du ez dela bidezkoa ofizioz berrikustea.